

EUSKARA ALA ERDARA, ZEIN ZAHARRAGOA?

Badira, Koldo Mitxelenak inoiz gogorarazten zigunez, classical fallacies edo falazia klasikoak deituriko egiantzeko gezurrak, beti gauzak oker ulertu eta halaxe erantzutera behartzen gaituztenak. Horrela, jendeari, euskara ala erdara, ea bietako zein den hizkuntza zaharragoa galdetzen zaionean, gehienek, inolako zalantzarik gabe, zaharrena euskara dela erantzuten dute. Ez dira konturatzen, ordea, galderak berak barruan ezkututzen duen maltzurkeriaz.

Euskara ala erdara, ea
bietako zein den hizkuntza
zaharragoa galdetzen
zaionean, gehienek, inolako
zalantzarik gabe, zaharrena
euskara dela erantzuten dute

Izan ere, gaztelania edo frantsesa aipatzen ditugunean, azken mende hauetan mintzatzen diren hizkuntza ondo mugatuak adierazten ditugu. Halere, euskara diogunean, -greziera edo pertsiara esatean bezalatsu- izen horrekin oraingo mintzairaz gainera, berdin aipa genezake, orain dela bi edo hiru mila urte hitz egiten zena, ordukoari, zehatzago adierazteko, aitzineuskara edo 'gaurko euskararen aurrekoa' deitu beharko geniokeen arren. Beraz, erromatarren film bat ikusi dut esatean, horrela berdin adieraz daiteke a) Italiako oraingo hiriburuaren bizimodua italieraz erakusten duena, zein b) latinez mintzo ziren garaian, Julio Caesarren hilketa antzeztan duena. Eta, horrexegatik, euskara izenak ere errealtate oso ezberdinak eskaini edo ezkuta ditzake, bakoitzaren gertatze-data islatu gabe.

Euskara diogunean, orain
dela bi edo hiru mila urte
hitz egiten zena bada,
ordukoari, zehatzago
adierazteko, aitzineuskara
deitu beharko genioke

Hizkuntzak aldatzen eta eguneratzen ari dira

Guztiok dakigunez, hizkuntza horrek izen berbera daraman arren, ez da gauza bera oraingo grezieraz (modernoaz) jakin edo mintzatzea eta Aristotelesen garaiko grezieraz (klasikoaz) jardutea, eta, orduko idazkera gaur arte aldatu ez bada ere, Greziako antzinako hiriburuari Athenai esaten zitzaion, baina oraingoaren ebakera, ordea, 'azini' dugu. Arrazoi berberetatik, munduan egiten diren hizkuntzak oro eten gabe aldatzen eta eboluzionatzen ari dira, -bizirik daudelako seinale, bestalde- gainerako bizidun guztietan bezala, bizitzeak haztea eta aldatzea esan nahi duelako. Horrexegatik, bizirik dagoen arbolak beti abar, hosto, lore eta fruitu berriak ematen diharduen bezala, ez dago, ezin egon daiteke, aldaketarik gabeko hizkuntza bizirik ere, beti berdin dirauena hila edo fosila delako.

Gurean ere gauza bera jazotzen da, gure mintzairak gaur duen formari eta antzina izan zuenari normalean izen berbera ematen diogun arren: euskara. Horrexegatik, dakigunetik, gaurko gizon, seme, emazte edo aita, duela bi mila urte, kizon, senbe, *emagazte eta ata ziren euskara zaharrea, gaurkoa eta ordukoa, enbor beretik badatoz ere, denborarekin aldatuak direlako. Guk orain dugun itxura eta hamar urterekin genuena, pertsona berberarena izanik ere, urteekin ezberdin diren bezalatsu.

Euskara inguruko erdarak baino zaharragoa ote da?

Orduan, zer? Euskara ez ote da inguruko erdarak baino zaharragoa? Ba, era absolutuan hitz eginez: ez, une honetan munduan mintzatzen diren hizkuntza guztiak, aurreko fase batetik helduak diren neurrian, adin berekoak direlako, eta den-denak antzina hizketan hasi ziren lehen gizakien denboraraino heltzen dira.

Euskara ez ote da inguruko erdarak baino zaharragoa? Ba, era absolutuan hitz eginez: ez

Baina bada, ordea, beste ikuspuntu bat: zahartasun erlatiboa. Hau da, hizkuntzak toki berean kokaturik edo txertaturik daraman denbora. Alde horretatik, era absolutuan euskara, kitxua eta gaztelania adin bereko mintzairak diren arren, begien bistan da Amerikan kitxua zaharragoa dela espainiera baino, espainol kolonoak hara heldu zirenerako, jada Andeetako biztanleek mende asko zeramatelako han bertako hizkuntzaz berbetan. Horixe bera ulertu behar da gureagatik ere: Euskal Herrian euskara espainiera edo frantsesa baino askoz lehenagokoa da. Izan ere, erdara bi horien jatorria, azken buruan Italian da, latinean, eta erromatarrek duela bi mila urte inguru ekarri zuten hona. Baina garai hartako euskaldunek jada oraingo euskararen forma zaharrean (aitzineuskaraz) hitz egiten zuten.

Horrek esan nahi du, bertan erroturik zaharrena izan arren, euskara, adin absolutuan, gaztelania, frantsesa, ingelesa eta munduko beste edozein hizkuntza bezain urtetsua dela, eta, beraz, beste mintzaira horiek guztiak legez, lehenagoko, oraingo eta geroko giza ekintzak oro adierazteko gai, inolako mugarik gabea.

Euskara, besteak bezain hizkuntza normala

Historian zehar euskarak beste hizkuntzetatik berba batzuk hartu izan ditu, jende arrotzez inguraturik egon diren gainerako mintzairen antzera, hau da, munduko guzti-guztien parean, ez baita inon auzo edo bisitaririk gabeko giza talderik, eta hitz mailegatu horiek, bestalde, kultur eta merkataritza-harremanen ondorio normalak izaten dira. Ez da horregatik zer ezkutatu, ez eta ezeren lotsa izan beharrik ere. Beste hizkuntza batzuetatik berba mailegatuak izateak, azken buruan, gure berbeta ere, zentzurik hoberenean, mintzaira “normala” dela esan nahi du, hots, mundu honetakoa, oraindik puristaren batek bestela pentsatu arren.

Euskarak beste hizkuntzetatik berba batzuk hartu izan ditu, jende arrotzez inguraturik egon diren gainerako mintzairen antzera